

IRRATI EMISORENTZAKO OBRA MUSIKALAREN ERABILERA TARIFAK

SARRERA

Euskal Kulturgileen Kidego EKKI Elkartea (EKKI) jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa kolektiborako erakundea da. Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren arabera (aurrerantzean JIL) eta Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duen ekainaren 28ko 141/2011 Dekretuarekin bat eratu da. Aipatutako Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordio hori Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa da.

Kultura Ondarearen zuzendariaren 2014ko urriaren 20ko EBAZPENAREN kariz, baimena jaso du Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik edo nagusiki jardun dezan Jabetza Intelektualaren Legean aitortzen diren eskubideak kudeatzeko erakunde gisa.

Bere estatutuei jarraiki, egile eta jabetza intelektualaren eskubideen beste ezein titularren ustiapen-eskubideak eta ondare izaerako eskubideak kudeatzea du helburu. Beste batzuen artean, hurreneko eskubideak kudeatzen ditu:

- a) Erreproduktzio, banaketa eta komunikazio publikoari dagozkion eskubide eskusiboak, literatura, antzerki, musika, ikusentzunezko, eta izaera grafiko ala plastikoko obren gaineko egiletza eta beste eskubideei ala eskubie lotuei (artista, interpretatzaile eta produktoreen eskubideak, JIL-ko II. Liburuan azaltzen direnak) dagokienez.
- b) Eskubidedun hauei dagozkien ordainketa hutseko eskubideak, bereziki JIL-ko 20, 90, 108, 116 eta 122 artikuluetan zehazten diren heinean, aurretik aipatutako obren erreproduktzio eta komunikazio publikoei, fonogramen erreproduktzio eta komunikazio publikoari eta ikusentzunezko produktzioen erreproduktzio eta komunikazio publikoari dagokienez.

Halaber, tarifok orain arte irrati erabiltzaileentzako ezarritako tarifa orokorren barne zeuden epigrafe bereziak ordezkatzeko dituzte. Izatez, Irratigintza erakundeei dagozkien inguruabar bereziak ere kontuan hartzen ditu, baita euskal irrati ekosistemaren errealitateari erantzun ere. Horrez gain, tarifok doitzen saiatzen dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzaren ECD/2547/2015 Aginduak ezarritako eta ondoren 2/2018 Errege dekretu bitartez JIL-n integraturiko printzipioetara, eta hark Kudeaketa Erakundearen tarifen determinazioarako ezartzen dituen baldintza eta irizpideei jarraiki. Areago, eta irrati-gintza erakundeei dagokien heinean, Jabetza Intelektualeko Komizioaren Lehen Atalaren AGEDI-AIE eta AERC-en arteko tarifak ezartzeko Erabakia ere kontuan hartu dira.

Azkenik, irrati-gintza erakundeentzako osatutako tarifok erabilera zehatzeko printzipioa dute gidagarri bakar. Egun eskuragarri diren teknologiek eskeinitako aukerei helduz, EKKIk bere

errepertorioaren erabileraren identifikazio osoa egingo du. Beraz, identifikazio sistemaren arabera, irratigintzako erakunde den erabiltzailearekiko justua, eta bazkidearentzako gardena den ereduaz ezarri nahi du EKKIk.

IRRATI-ETXEEK MUSIKA LANAK ERABILTZEKO TARIFA

TARIFAREN OBJEKTUA

Tarifa honen ordainketaren bitartez emandako lizentziak irrati-etxeak baimentzen ditu hurrengo ekintzetara, EKKIren errepertorioan dauden musika obrei dagokionez:

- a) Erreproduktzioari dagokionez:
 - i) Erakundeak obrak grabatzea haien zabalkunderako, izan emisio ala beste edonolako hedapen bitartez.
 - ii) Grabazio honen kopiak egitea barne erabilerarako zein beste erakunde batzuekin elkarbanatzeko, beti ere horien emisiorako bada.
 - iii) Errepertorioko obren erreproduktzioa epigrafe honetan baimendutako hedapen motetarako, era legezkoan produzituak izan badira baina inoiz baimendu ez badira haien erreproduktzio ala komunikazio publikorako
 - iv) Irrati-etxeak berak era legezkoan emititutako programen artxiboak grabatzea sare dijital baten, haren eskura jartzerako.

- b) Komunikazio publikoari dagokionez:
 - i) Irratiz emititzea ala hedapen inalanbrikoa egitea irrati-etxearen programazioan, bakarrik soinuarena.
 - ii) Jatorrizko erakunde ala irrati-etxeak era lizitoan emititutako programak erretransmititzea irrati-ala hedapen inalanbriko bidez, bakarrik soinuarena.
 - iii) Exekuzio publikoak antolatzea, beti ere horren emisio oso eta aldaketa gabekorako bada, publizitaterako etenaldietaz aparte, zuzenean ala hogeitamar (30) eguneko epean, eta ordainsaririk eskatzen ez bada sarrerarako. Baimen honek ez ditu babesten ordainsariaren trukeko sarrera daukaten exekuzioak, ezta hirugarrenen alde antolatuak ala hirugarrenek antolatuak, ez badute berezko baimenik.
 - iv) Hari, kable, zuntz optiko edo antzeko beste bideren batez irrati-etxearen emisioa era oso eta aldaketarik gabean transmititzea, dela abonamenduz, dela gabe. Baimen honen barne daude ere irrati-etxearen emisio oso eta aldaketarik gabea transmititzea hedapen dijitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
 - v) Irrati erakundeak emisio bitartez hedatutako obrak satelite batera doan programa batera gehitzea, obra horren atzipen zuzena ala beste irrati erakunde baten bitartekoa bideratzen duena, hark beharrezko baimena badauka.
 - vi) Irrati bidez hedatutako programa osoen ala haien zatien eskura jartzea, betiere irrati-etxeak aurretik emititu ala beste edonola hedatu baditu, hartzaileek nahieran entzun ahal izateko.

ORDAINSARIA

I. ERABILERA ZEHATZAGATIKO TARIFA

Irratigintzan musika obraren esplotazioa monitorizatzeko sortu diren teknologiak medio direla, EKKIk erabilera zehatzagatiko tarifa aurkezten du erabiltzaile kategoria honek obra mota honren esplotazio zehatz honetarako. Bestelako tarifarik ez dagokio beraz.

a. Oinarria

Tarifa honi aplikaziozkoa zaion oinarria kalkulatzeko, kontuan hartuko dira irratigintza erakundearen irabazi gordinak. Horien artean bereiztuko dira egozgarriak diren gastuak eta egozgarriak ez direnak. Egozgarriak dira, era adierazlean eta ez murriztailean:

1. Abonatu ala bazkideen kuotetatik datozenak
2. Esplotazioaren defizita betetzeko egiten diren kapital-ekarpenak
3. Ekintza enpresariala aurrera eramateko diru-laguntzak
4. Publizitatetik datozen irabaziak, izan
 - a. Diruz ordainduak
 - i. Patrozinadoreek ordaindutako kopuruak programak produzitu ala ko-produzitzeko
 - b. Diruz ordainduak ez badira, publizitate espazio bati dagozkion irabaziak kalkulatuko dira analogia bitartez, iragarleei antzeko espazio baterako kobratuko litzaiekeen tarifa aplikatuz irabazi bezala
5. Erabiltzaileak kudeatu arren beste sozietate batzuen kontuetan agertzen direnak
6. Hirugarrenek bere gain hartzen dituzten gastuak, kontabilitate arauekin bat etorriaz

Egozgarriak ez diren irabaziak:

1. Finantza-irabaziak
2. Programa propioen salmenta ala lagapenetik eratorritakoak
3. Ekintza enpresarialetik at beste jarduera batzuk garatzeko diru-laguntzak

Behin egozgarriak diren irabazi gordinak zehazturik (aurrerantzean IGE), horiek zatitu egingo dira irratigintza-erakundeak kudeatzen dituen irrati emisora desberdinen artean. Horretarako, kontuan hartuko dira entzuleria datuak, proportzionalki zehatuaz emisora bakoitzari erakundeko emisora guztiek guztira daukaten entzulerian oinarrituta ehuneko bat, zuzentzaile bezala aplikatuko zaiona irabazi gordin egozgarrien zifrari. Aurrekoa ez da aplikatuko baldin eta emisora bakoitzeko IGE zehazteko formarik badu.

Aurreko pausuari jarraiki, zehaztuko da baimentzen den erreperitorio motak emisora bakoitzan daukan garrantzia, aldagarri bezala aplikatuko zaiona emisora bakoitzeko irabazi egozgarrien proportzioari. Horretarako, eta Jabetza Intelektualeko Komisioaren Lehenengo Atalak AGEDI-AIE irratia erabakian oinarrituta, emisorak musikalak ala ez musikalak diren erabakiko da. Erabakian zehaztutako garrantzia ehuneko aldagarriak (g%) aplikatuko zaizkio ondoren oinarriari:

IRRATI EZ MUSIKALA

Erabilera intentsitate %	Aldagarri % (g%)
<3%	40,01%
3-22%	55%
>22%	70%

IRRATI MUSIKALA

Erabilera intentsitate %	Aldagarri % (g%)
<65%	70,01%
65-90%	85%
>90%	100%

Aldagarri hau aplikatzearen azkeneko emaitza izango da emisora bakoitzaren ordainsaria kalkulatzeko ekuazioari aplikatuko zaioneko oinarria. Oinarria kalkulatzeko ekuazioa, beraz, hurrenekoa izango da:

$$(IGE \times Entzule \%) \times g\% = \text{Oinarria}$$

b. Igorpen lineala

Igorpen linealei lotutako IGE-i, hau da, TARIFAREN OBJEKTUA atalean a) i., ii. eta iii., eta b) i., ii., iii., iv. eta v. puntuei dagozkien emisora bakoitzeko irabaziei, hurreneko tipoa aplikatuko zaie, non ezh% erabilera zehatzagatiko aldagarria den, zeinak ehunekotan adierazten duen emisio denbora osotik zein den EKKIren errepertoria ematen igaro den denbora zehatza, erabilera monitorizaziotik datorrena:

$$\text{Tipoa} = \%6 \times \text{ezh}\%$$

c. Eskura jartzea

Eskura jartzeari lotutako IGE-i, hau da, TARIFAREN OBJEKTUA atalean a) iv., eta b) vi. puntuei dagozkien emisora bakoitzeko irabaziei, hurreneko tipoa aplikatuko zaie, non ezh% erabilera zehatzagatiko aldagarria den, zeinak ehunekotan adierazten duen eskura jarritako programen erreproduktzio denbora osotik zein den EKKIren errepertoria ematen igaro den denbora zehatza, erabilera monitorizaziotik datorrena:

$$\text{Tipoa} = \%6 \times \text{ezh}\%$$

d. Bonifikazio eta deskontuak

Ehuneko hiru (%3) autolikidazioak osatu eta bidaltzearen formatu informatizatuan, eta banku domiziliazioa egitearren.

Ehuneko bi (%2) erreperitorioaren erabileren gaineko informazioa erreztearren, bai emisioan zein eskura jartzean.

b) Minimoak

Tarifa honek beharrezkoa duen monitorizazioa zailtasun teknikoak direla eta ezinezkoa balitz, ala erabilera zehatzaren monitorizazioaren ondorioz minimo hauek zehazten dutena baino txikiagoak balira, hemen zehaztutako minimoak aplikatuko lirateke:

Tokiko irratiak: 150€ urtean

Lurraldeko edo lurraldez gaindiko zabalkundun irratiak: 950€ urtean

IRRATI-ETXEEK FONOGRAMAK ETA INTERPRETAZIOAK ERABILTZEKO TARIFA

- TARIFAREN OBJEKTUA

EKKI jabetza intelektualeko legeak baimendutako eskubide mota desberdinak era bateratuan kudeatzen dituen erakunde bakarra da. Hortaz, honat aurkezten dira irrati-etxeek fonogramen esplotazioan, eta fonograma horietan edukita dauden interpretazioenetan, egin ditzaketen erabilerak, era bateratuan: AGEDI-AIEren irratiarako tarifen erabakian JIKLAK bateratutako 108.4 eta 116.2 artikuluetan ageri den fonogramen erreproduzio eta komunikazio publikorako ordainketa hutseko eskubideaz, eta 115 eta 116 artikuluei dagokien fonogramen erreproduzio eta komunikazio publikorako eskubide eskusiboetaz gain, EKKIk tarifa honetra bateratzen ditu baita ere 106. artikuluko artistei dagokien finkapenaren gaineko eskubide eskusiboa, 107. artikuluan arabera artistei dagokien haien interpretazioen erreproduzioa, eta 108.3 eta 116.1 artikuluan zehazten diren eskura jartze eskubideak, beti ere irratiaren ekintza ohikoan kokatuta dauden erabileretarako.

Tarifa honen ordainketaren bitartez emandako lizentziak irrati-etxeak baimentzen ditu hurrengo ekintzetara, ala likidatzen dituzte hurrengo ekintzak, ordainketa hutseko eskubideei dagokienez, EKKIren erreperatorioan dauden fonogramei eta horiek dituzten EKKIren erreperatorioan dauden interpretazio dagokionez:

a) Finkapenari dagokionez:

- i) Irrati etxeak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaile ala exekutatzaileen saioen finkapena, beti ere horren emisio oso eta aldaketa gabekorako bada, publizitaterako etenaldietaz aparte, zuzenean ala hogeitamar (30) eguneko epean, eta ordainsaririk eskatzen ez bada sarrerarako. Baimen honek ez ditu babesten ordainsariaren trukeko sarrera daukaten exekuzioak, ezta hirugarrenen alde antolatuak ala hirugarrenek antolatuak, ez badute berezko baimenik. Halaber, baimen honek ez du babesten fonograma ala interpretazioen sinkronizazioa publizitate lanetan, ezta finkapenari dagokion beste adiera ala usadiorik, epigrafe honetan zehaztutakoaz gaindi.

b) Erreproduzioari dagokionez:

- i) Erakundeak fonogramak grabatzea haien zabalkunderako, izan emisio ala beste edonolako hedapen bitartez, inolako mugarik gabe grabaketa horien kopuruari dagokionez.
- ii) Grabazio honen kopiak egitea barne erabilerarako zein beste erakunde batzuekin elkarbanatzeko, beti ere horien emisiorako bada.
- iii) Erreperatorioko fonogramen eta interpretazioen erreproduzioa epigrafe honetan baimendutako hedapen motetarako, era legezkoan produzituak izan badira baina inoiz baimendu ez badira haien erreproduzio ala komunikazio publikorako
- iv) Irrati etxeak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaile ala exekutatzaileen saioen lehenengo finkapenen erreproduzioa, beti ere horren emisio oso eta aldaketa gabekorako ekintzetarako bada, publizitaterako etenaldietaz aparte, zuzenean ala hogeitamar (30) eguneko epean, eta ordainsaririk eskatzen ez bada sarrerarako.

Baimen honek ez ditu babesten ordainsariaren trukeko sarrera daukaten exekuzioak, ezta hirugarrenen alde antolatuak ala hirugarrenek antolatuak, ez badute berezko baimenik.

- v) Irrati-etxeak berak era legezkoan emititutako programen artxiiboak grabatzea sare digital baten, haren eskura jartzerako, hauek EKKIren erreperiotorioko fonogramak dituztenean.
- c) Komunikazio publikoari dagokionez:
- i) Irratiz emititzea ala hedapen inalanbrikoa egitea irrati-etxearen programazioan, bakarrik soinuarena.
 - ii) Jatorrizko erakunde ala irrati-etxeak era legezkoan emititutako programak erretransmititzea irrati-ala hedapen inalanbriko bidez, bakarrik soinuarena
 - iii) Irrati etxeak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaile ala exekutatzaileen saioen komunikazio publikoa, beti ere horren emisio oso eta aldaketa gabekorako bada, publizitaterako etenaldietaz aparte, zuzenean ala hogeitamar (30) eguneko epean, eta ordainsaririk eskatzen ez bada sarrerarako. Baimen honek ez ditu babesten ordainsariaren trukeko sarrera daukaten exekuzioak, ezta hirugarrenen alde antolatuak ala hirugarrenek antolatuak, ez badute berezko baimenik.
 - iv) Hari, kable, zuntz optiko edo antzeko beste bideren batez irrati-etxearen emisioa era oso eta aldaketarik gabean transmititzea, dela abonamenduz, dela gabe. Baimen honen barne daude ere irrati-etxearen emisio oso eta aldaketarik gabea transmititzea hedapen digitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
 - v) Irrati erakundeak emisio bitartez hedatutako obrak satelite batera doan programa batera gehitzea, obra horren atzipen zuzena ala beste irrati erakunde baten bitartekoa bideratzen duena, hark beharrezko baimena badauka.
 - vi) Irrati bidez hedatutako programa osoen ala haien zatien eskura jartzea, betiere irrati-etxeak aurretik emititu ala beste edonola hedatu baditu, hartzaileek nahieran entzun ahal izateko.

- ORDAINSARIA

I. ERABILERA ZEHATZAGATIKO TARIFA

a. Oinarria

Tarifa honi aplikaziozkoa zaion oinarria kalkulatzeko, kontuan hartuko dira irratigintza erakundearen irabazi gordinak. Horien artean bereiztuko dira egozgarriak diren gastuak eta egozgarriak ez direnak. Egozgarriak dira, era adierazlean eta ez murriztailean:

1. Abonatu ala bazkideen kuotetatik datozenak
2. Esplotazioaren defizita betetzeko egiten diren kapital-ekarpenak
3. Ekintza enpresariala aurrera eramateko diru-laguntzak
4. Publizitatetik datozen irabaziak, izan

- a. Diruz ordainduak
 - i. Patrozinadoreek ordaindutako kopuruak programak produzitu ala ko-produzitzeko
 - b. Diruz ordainduak ez badira, publizitate espazio bati dagozkion irabaziak kalkulatu dira analogia bitartez, iragarleei antzeko espazio baterako kobratuko litzaiekeen tarifa aplikatuz irabazi bezala
5. Erabiltzaileak kudeatu arren beste sozietate batzuen kontuetan agertzen direnak
 6. Hirugarrenek bere gain hartzen dituzten gastuak, kontabilitate arauekin bat etorriaz

Egozgarriak ez diren irabaziak:

1. Finantza-irabaziak
2. Programa propioen salmenta ala lagapenetik eratorritakoak
3. Ekintza enpresarialetik at beste jarduera batzuk garatzeko diru-laguntzak

Behin egozgarriak diren irabazi gordinak zehazturik (aurrerantzean IGE), horiek zatitu egingo dira irratigintza-erakundeak kudeatzen dituen irrati emisora desberdinen artean. Horretarako, kontuan hartuko dira entzuleria datuak, proportzionalki zehatuaz emisora bakoitzari erakundeko emisora guztiek guztira daukaten entzulerian oinarrituta ehuneko bat, zuzentzaile bezala aplikatuko zaiona irabazi gordin egozgarrien zifrari. Aurrekoa ez da aplikatuko baldin eta emisora bakoitzeko IGE zehazteko formarik badu.

Aurreko pausuari jarraiki, zehaztuko da baimentzen den erreperitorio motak emisora bakoitzan daukan garrantzia, aldagarri bezala aplikatuko zaiona emisora bakoitzeko irabazi egozgarrien proportzioari. Horretarako, eta Jabetza Intelektualeko Komisioaren Lehenengo Atalak AGEDI-AIE irratiak erabakian oinarrituta, emisorak musikalak ala ez musikalak diren erabakiko da. Erabakian zehaztutako garrantzia ehuneko aldagarriak (g%) aplikatuko zaizkio ondoren oinarriari:

IRRATI EZ MUSIKALA

Erabilera intentsitate %	Aldagarri % (g%)
<3%	40,01%
3-22%	55%
>22%	70%

IRRATI MUSIKALA

Erabilera intentsitate %	Aldagarri % (g%)
<65%	70,01%
65-90%	85%
>90%	100%

Aldagarri hau aplikatzearen azkeneko emaitza izango da emisora bakoitzaren ordainsaria kalkulatzeko ekuazioari aplikatuko zaioneko oinarria. Oinarria kalkulatzeko ekuazioa, beraz, hurrenekoa izango da:

$$(IGE \times Entzule \%) \times g\% = Oinarria$$

b. Igorpen lineala

Igorpen linealei lotutako IGE-i, hau da, TARIFAREN OBJEKTUA atalean a) i., b) i., ii., iii. eta iv., eta c) i., ii., iii., iv. eta v. puntuei dagozkien emisora bakoitzeko irabaziei, hurreneko tipoa aplikatuko zaie, non ezh% erabilera zehatzagatiko aldagarria den, zeinak ehunekotan adierazten duen emisio denbora osotik zein den EKKIren erreperetoria ematen igaro den denbora zehatza, erabilera monitorizaziotik datorrena:

$$\text{Tipoa} = \%3,5 \times \text{ezh}\%$$

c. Eskura jartzea

Eskura jartzeari lotutako IGE-i, hau da, TARIFAREN OBJEKTUA atalean a) i., b) v., eta b) vi. puntuei dagozkien emisora bakoitzeko irabaziei, hurreneko tipoa aplikatuko zaie, non ezh% erabilera zehatzagatiko aldagarria den, zeinak ehunekotan adierazten duen eskura jarritako programen erreproduzio denbora osotik zein den EKKIren erreperetoria ematen igaro den denbora zehatza, erabilera monitorizaziotik datorrena:

$$\text{Tipoa} = \%3,5 \times \text{ezh}\%$$

d. Bonifikazio eta deskontuak

Ehuneko hiru (%3) autolikidazioak osatu eta bidaltzearren formatu informatizatuan, eta banku domiziliazioa egitearren.

Ehuneko bi (%2) erreperetorioaren erabileren gaineko informazioa erreztearren, bai emisioan zein eskura jartzean.

II. MINIMOAK

Tarifa honek beharrezkoa duen monitorizazioa zailtasun teknikoak direla eta ezinezkoa balitz, ala erabilera zehatzaren monitorizazioaren ondorioz minimo hauek zehazten dutena baino txikiagoak balira, hemen zehaztutako minimoak aplikatuko lirateke:

Tokiko irratia: 150€ urtean

Lurraldeko edo lurraldez gaindiko zabalkundedun irratia: 950€ urtean.

EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA

Zehaztutako tarifen aplikazio bakoitzeko emandako zerbitzuaren kostua 172,63€-koa izango da, barne sartuz tarifa bien aplikazioa kostu horren barruan.

